

ZERBITZU ATARIA


Zerbitzu-ataria web-aplikazio bat da, eta aukera emango die organikoren baten gaineko erantzukizuna duten pertsoneri UXXI-n, kudeaketa-sistema – ekonomikoan, jasotako informazio ekonomikoa eskuratzeko.

Zerbitzuen atarira sartzeko, esteka hau sakatu beharko duzu:

<https://ehu.universitasxxi.cloud/portal/>


Behin barruan, aplikazioak bi zerbitzu eskaintzen ditu:

- 1.- Situación del Centro
- 2.- Presupuestos por orgánica




1.- Situación del Centro

"Situación del Centro" deritzon lehen zerbitzuan klikatzean, urte jakin batean organiko baten egoera eskatzeko aukera irekitzen da. Lehenespenez, uneko urtea izango da; kontsultatu nahi den urtea korrontea bada, organikoaren kodea jakinarazi behar da; adibidean, organiko bat adierazi da, eta lupa klikatu:



Kutzak kontsultatutako organikoko kreditu osoa eta kreditu erabilgarria erakusten ditu. Kutzaren gezi urdina klikatuz gero, informazio hau agertuko zaigu:



Aplicaciones vinculantes

0,00 € Crédito inicial	1.108.837,34 € Modificaciones de crédito	1.108.837,34 € Crédito total
497.019,94 € Gastos reservados	41.682,57 € Gastos efectivos	570.134,83 € Saldo disponible

Aplicación vinculante (Orgánica Funcional Económica)	Crédito inicial	Modificaciones de crédito	Crédito total	Gastos reservados	Gastos efectivos	Disponible
10.40.20.AA.AA 025 1	0,00 €	595.907,70 €	595.907,70 €	291.668,36 €	0,00 €	304.239,34 €
10.40.20.AA.AA 025 2	0,00 €	510.293,17 €	510.293,17 €	205.351,58 €	41.682,57 €	263.259,02 €
10.40.20.AA.AA 025 6	0,00 €	2636,47 €	2636,47 €	0,00 €	0,00 €	2636,47 €

Laburpen-taulako informazioa honako hau da:

1.- Hasierako kreditua: 0. Izan ere, UPV/EHUren hasierako aurrekontu arruntetik ezer hornitu ez duen proiektua da.

2.-Kreditu-aldaketak: urteko zuzkidura hauei dagozkie:

- Dagozkion errektoreordetzak eman dizkion kreditu-birbanaketari dagozkionak.
- Hasierako aurrekontua handitzearen ondoriozko aurrekontu-aldaketak, normalean, gehitutako gerakinekin bat datoz.
- Barne-fakturazio positiboak (diru-sarrerak) eta negatiboak (gastuak) unibertsitateko beste organikoekin.

3.- Guztizko kreditua; hasierako kredituaren eta aldaketen batura da.


4.- Gastu erreserbatuak: bat dator oraindik gauzatu ez diren gastuekin, baina dagoeneko espedienteren bat edo gastu-faseren bat eginda dutenak kontabilitate-dokumentuaren obligazioaren eta ordainketaren fasera iritsi gabe. Fase honetan azken hilabetean IZAPIDEn sartutako gastuak aurkituko dira, nominaren bidez ordaintzen direnak eta oraindik kontabilizatu ez direnak; gastu horiek IZAPIDEn sartu eta hurrengo hilaren hasieran kontabilizatzen dira.

5.- Benetako gastuak: behartuak eta ordainduak izan diren gastuak dira, hau da, gastu horren kontabilitate-exekuzioa amaitu da.

6.- Saldo erabilgarria: erreserbatutako gastuek eta benetako gastuek murriztutako guztizko kredituari dagoakio.

Egoeraren laburpen-taularen behealdean, informazio hori aurrekontu-aplikazioaren mailan zehazten da (organikoa/funtzionala eta ekonomikoa (kapitulu mailan)); adibidean, organikoa eta funtzionala hiru kapitulutan gauzatu dela erakusten da: 1 (pertsonala), 2 (suntsikorra) eta 6 (inbentariagarria).

Beheko pantaila horrek honako hau erakusten du:



Organiko horren aurrekontu-aplikazioen maila goreneko informazioa erakusten da; horietako edozeinetan klikatuz, aplikazio horren mugimenduak lortzen dira.

Aurrekontu-aplikazio bakoitza batera nola gauzatzen den ikusteko beste aukera bat "Excel deskargatu" ikonoaren gainean klik egitea da (laburpen-taularen goiko aldean, eskuinaldean).


2.- Presupuestos por orgánica

"Presupuesto por orgánica" deritzon bigarren zerbitzuan sartuz gero, urte jakin batean organiko baten egoera eskatzeko aukera irekitzen da; besterik adierazi ezean, uneko urtea izango da. Beraz, kontsultatu nahi den urtea korrontea bada, organikoaren kodea informatzea geratzen da; adibidean, organiko bat adierazi da eta lupa klikatu da.

The screenshot shows a web browser window displaying the 'Portal de servicios' interface. The main heading is 'Presupuestos por orgánica'. Below this, there is a search bar with 'Ejercicio 2024' and '104020AAAA'. A dropdown menu is open, showing details for '10.40.20.AA.AA'. The details include: 'Recaudado 0,00 €', 'Reconocido / concedido 0,00 €', and a green progress indicator for 'Disponible 570.134,83 €' out of a '1.108.837,34 € de crédito total'. The footer of the page contains version information 'Portal de servicios (v.24.3.5.1.2606)', accessibility and privacy notices, and development credits to 'UNIVERSITAS XXI'.

Ematen duen informazioa bat dator "Situación del centro" deritzon egoeran kreditu eta kreditu osoaren erabilgarritasunari buruz ematen denarekin. Horrez gain, adierazitako organikoan eta urtean jasotako eta bildutako diru-sarreraren berri ematen da.

Kutxa edo gezi urdinaren gainean berriro klikatzean, informazio hau agertuko da:



Kutxa bakoitzak aurrekontu-aplikazio bakoitzean erabilgarri dagoen kreditua erakusten du, hau da, aplikazio organiko, funtzional eta ekonomikoaren multzoa, bai eta aplikazio bakoitzaren kreditu gastatua eta ordaindua ere.

Adibidean, goiko laburpen-koadroa, erabilgarri dagoen saldoa positiboa da, ezin da inoiz negatiboa izan, organikoaren multzoari baitagokio; banakatzean saldo negatiboak agertzen dira kapituluko kredituak (1 (pertsonea), 2 (suntsikorra), 6 (inbentariagarria),...) lotuta daudelako, hau da, baliteke 1. kapituluko ekonomiko batean kredituaz hornitu izana. Adibidean kreditu osoa beste ekonomiko batean hornitu zen (15060), eta erakusten diren ekonomikoetan gastatu da; hortik dator erabilgarritasun-saldo negatibo hori.

Urtean kontabilizatu diren faktura guztien eta eskatutako faktura organikoaren zerrenda lortzeko, egoeraren laburpen-koadroaren gainean eskuinaldean klik egin behar da, "Todos los gastos" ikonoaren gainean.